

# Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko urtarrilak 10

## Hiru bertsozaleei omenaldia

Hilak 19 bertsolaritzaren munduan funtsezko papera bete duten hiru lagun omenduko ditu Euskal Herriko Bertsolarien Elkarteak Donostiako Victoria Eugenia Antzokian: Teodoro Hernandorena t zizurkildarra, Mariano Izeta elizondarra eta Emile Larre baigorriarra. Hau izanen da elkarte honek bertsolari ez direnak omentzen dituen lehendabiziko aldia, baina merezimendu osoz, hala ere. Hiruak izan bait ziren gerra ondoko garai zailetan, euskal kultura osoa ilunpean zebilen garaietan, bertsolaritza bulkatu eta lagundu zuten horietakoak. Hiruek ere

Nafarroarekin lotura berezia dute, mugaz bi aldeetako Nafarroan egin bait dute lana, Hernandorena eta Larrek beren itzala Lapurdi eta Zuberoara zabaldu bazuten ere. Hernandorena, Mattin eta Xalbador bikotea ezagutarazi zuena, egun Hondarribian bizi da. Mariano Izetak duela berri jaso zuen Nafarroako bertsolarien omenaldia, eta 'Baztango Hiztegi Ttipia' ari da



### Metropoli forala



#### FELIPE RIUS

Lainoak estaltzen duenean beste itxura bat hartzen du metropoli foral honek eta forma guztiak difuminatzen direla aprobetxatuz iraganeko fantasmak paseatzera ateratzen dira, urtarileko aldapaz pentsatuz kezkatuak dabiltzan hiritarrek nahasten dira eta eguzkia nahiz ilargiaren izpiak hodeiak urratzen hasi aurretik desagertu egiten dira inolako arrastorik utzi gabe.

Egun hauetan nire bufanda zaharra bilatzen dut armairuaren azken kajoian eta kalera ateratzen naiz haurtzaroko pertsonaien bila. Lehengoan Agustinekin topatu nintzen eta ikusi bezain laster lasterka hasten ginela oroitu nintzen, zigarroa ahotik ateratzen ez zuen ero harek auzoko ume guztiok ikaritzen bait gintuen. Jakina, berak ez ninduen ezagutu, baina gustora onartu zuen ordaindu nion ardoa eta aspaldiko garaiez hitz egin genuen, kaleratzeko lainoaren zai egon behar ez zuen urteez. Izkina batean hilda aurkitu zutela entzun nuen duela urte asko goiz batean eta pena sentitu nuen gizon harek ez gintuela berriro ikaratzeko ulertzean.

Horregatik, poztu egin nintzen lainoaren artean ikusi nuenean. Tabernatik ateratzean boleto bat erosi genion Maria itsuari eta bost duroko txanpon bat eman nion azken urteetan itxuraz batere aldatzen ez den Martin eskale mozkortari. Gure txikitako pertsonaia guztiak kalean zebiltzan eta pozik ziruditen. Neri, berriaz, tokia gero eta irrealagoa egiten zitzaidan. Irteeraren bat bilatzen saiatu nintzen, baina azkenean galduta nengoela aitortu behar izan nuen. Denek parre egiten zuten eta lainoa gero eta itxiagoa zen. Bapatean kotxe baten burdin bihurrituak eta kristal hautsiak etorri zitzaizkidan gogora eta aurrerantzean oroitzen mundu hartan bizi beharko nuela jakin nuen.



## Gure Aukerak

### MINTZALDIAK

**Ricardo Garcia Villoslada** poetaren antologia aurkeztuko da gaur ostirala Nafarroako Museoan, arratsaldeko zortzietatik aurrera eta Nafar Ateneok antolatutako duen ekitaldi batean. 'Obra Poetica' lanak, Medialuna argitaletxeak kaleratutakoa, 91 urte zituela Loiolan (Gipuzkoa) iaz hil zen jesuita honen poesiaren antologia biltzen du, eta bertan hogeitameretzi poema jaso ditu Angel Urrutia lanaren arduradunak.

### ANTZERKIA

'Andereñoen orkestra' lana izanen da ikusgai gaur ostirala Iruñeko Gaiarre antzokian, bi emanaldietan, arratsaldeko zortzietatik aurrera. La Claque taldearen eskutik duela gutxi izan zen lana Iruñean, eta orduan izan zuen arrakastak eragin du berriro ere lan hori ematea.

### MUSIKA

**Nafarroako Kantu Txapelketan** aritutako zenbait talde eta bikoteak abestuko dute Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen, gaur ostirala, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Lasai, lasai, txapelketak sortzen dituen nerbio eta tentsio latz horiek gabe, lagunartean, gustora, Iruñeko Alkurruntz taldeak 'Iduzki denean' abestuko du, Zaldiko taldeak 'Astiria mendian', Lakuntzako Turunbai ahizpek 'Etorkizunaren giltzak', Leitzako Izarra bikoteak 'Tipia maitagarria', Iruñeko Ahuzki bikoteak 'Bortuan Ahuzki', Lizarrako Mikel Elizaga eta Miren Larunbek

### ERRAN DUTE

6

*Biztanlegoaren % 25ek gaizki eta gutxi egiten du lo»*

#### Luis Maria Gonzalo

Nafarroako Unibertsitatean anatomian katedraduna  
«Polito jokatzeko oso zaila da, eta guk beti egin dugun jokoa-  
rekin lortu ditugu emaitzak»

#### Eugenio Bustingorri

Osasunako kapitaina  
«Lotsatuta nago nafarra iza-  
teagatik gure Gobernuak de-  
mokratikoak ez diren beste  
taldeekin hitzegin nahi duela-  
ko»

#### Pedro Bueno

Nafarroako Merkatal Ganbarako  
presidente ohia  
«Minbizia duten haurren %  
65ek badu sendatzea»

#### Luis Sierrasesumaga

Unibertsital Klinikako  
zuzendaritzakoa

## Iruñerrian zehar

Iruñerria ezagutzeko aukera izanen dugu asteburu honetan, bertan dauden eskaintzak ez bait dira txantxetan hartzekoak. Iruñea nafar gehienek ongi ezagutzen badute ere, ez da antzekorik gertatzen ondoan gelditzen diren inguruekin, bai zendeak nola beste ibarrekin ere.

Hain zuzen ere, Arangurenara bisitaldia proposatu nahi dizuegu asteburu honetarako. Bere izena ederki ezaguna duela lau bat urtetik hona Iruñerriko Mankomunitatea Gongoran egiten ari den zabortegea dela kausa, Aranguren inguru ederrak ditu, herri txikietan banatuta. Ibilbidea kotxez zein bizikletaz egin daiteke lasai asko.

Taxoaren, horrela, gotiko garaiko etxe ederrak ikus daitezke, bi elizekin batera, eta Zolinan San Salvador basiliza. Gongoran, hain zuzen ere zabortegearen inguruan, aspaldiko markesadoreen bi jauregi mantentzen dira, bata berria, bestea zaharra. Zaharra jadanik XV mendean armiarako tokia zen, eta berria 1695eko da.

Lakidainetik ikusmira ederra antzeman daiteke Zolinako putzuarena, egun Potasasek erabilitakoa. Bideari jarraiki, eta Aranguren zeharkatu ondoren, Ardanazera heltzen



B. AZURMENDI

da. San Vicente bertako elizatik Iruñerri osoko ikusmira ederrenetako goza daiteke. Erreniega, San Donato, Ezkaba mendia, Iruñea, Zizur Nagusia, Badostain, Taxoare...

Mendillorri, eta orain eraikitzen ari diren urbanizazio berriaren ondorekin, XV mendeko jauregia bisita daiteke. Bere bi dorre sendoek zaintzen

dute zona osoa, denbora eta urteei muzin egingen baliete bezala.

Arangurenetik kanpo ere, Arre, Burlata, Antsoain, Artika eta abar bisita daitezke, denak etxe berriez osatuta izanda ere, denek bait dituzte, Ezkabaren magalean, alde zahar-  
rak, Iruñerriko historiaren leku-  
koak.

'Hamar kopia harturatzeko' eta Iruñeko Iñaki eta Bixentek 'Kaiolan nintzelarik'. Beraz, kantu berriak eta zaharrak, jakiteko zertan dabilen gure herrialdeko euskal kantagintza. Hain zuzen ere, Doneztebeko finaleko kaseta salgai dago dagoeneko,

zazpirehun pezetan. Nahi duenak Euskalerrria Irratira dei beza: 17 01 51.

**GBH eta Parabelum** taldeek joko dute gaur ostirala, Lakuntzako Ilargi dantzalekuan, gaueko 23.00etatik aurrera. Barakaldokoen 'Bronka en

el bar' GOR disketearen eskutik atera duten beren azken diskoa aurkeztuko dute.

**Malaria** Iruñeko taldea izanen da entzun eta ikusgai Altsasuko gazte-  
txean, bihar larunbata, hilak 11,  
gaueko 22.00etatik aurrera.

### ASTEKO PERTSONAIAK

#### Joseba Goikoetxea



Iruñeko Udal Ikastolako gurasoa

Nafar hiriburuko Udal Ikastolako gurasoak gose grebari ekin zion joan den asteartean ikastetxe honetan gabinete psikopedagogikoa eskatu eta bertan dagoen egoera salatzeko. Joseba Goikoetxeak gose greba udal txekiko pasiloetan hastekoa zuen, baina Santiago Cervera zinegotziarekin elkarrizketatu ondoren, Nafarroako Ikastolen Federazioaren egoitzan segitzea erabaki zuen. Gabinete hau Nafarroako ikastetxe publiko guztiak daukate, baina udal ikastolen kasuan Udala eta Nafarroako Gobernuaren arteko konponbiderik ezak eragin du egoera. Bi erakunde arteko elkar ulertze falta behin baino gehiagotan salatu dute ikastolako gurasoek. Udaleko Hiritar Zerbitzu Batzordeak zentruaren egoerari betiko konponbidea emateko konpromezua hartu du.


#### Asun Apestegia



Iruñeko zinegotzia

PSOeko zinegotziaren etxean zenbait pintada agertu ziren igande goizean, zigor mehatxu eta birao frankorekin. Horiakin batera, ETA-ren irudiak ere agertu ziren marraztuta Apestegiaren etxeko hormetan. Zinegotziak berak azaldu zuenez, honekin lau dira Txantrea auzoan duen etxeak jaso dituen erasoak abendutik hona, aurretik ere beste batzuk izan baziren ere. Pintadak agertu eta hurrengo egunean Iruñeko Udaleko bere taldekideen bisitaldia izan zuen Asun Apestegiak, laguntza eskaini ziotenak. Apestegiaren esanetan, erasoak Txantreatik alde egin dezan dira eginak, «baina ez dute lortuko» adierazi zuen. Zinegotziak bere familiarekiko begirunea eskatu zuen «ideia jakin batzuk izateagatik jasan behar izan ditudan erasoak gehiegizkoak direlako».

#### Leon Iudasin



Xake jokalaria

Xake jokalaria errusiarrak bigarren Xaldiz nagusitu zen Iruñeko II Xake Txapelketan, Miguel Illescas katalanarekin berdindu ondoren. Munduko hobereenen artean kokatuta, iaz ere garaipena lortu zuen Viktor Korchnoi bezalako jokalarien aurrean. Txapelketa, baina, nahiko txarki hasi zuen errusiarrak, Illescasekin berdindu eta Polgar hungariarrarekin galdu egin bait zuen. Ondoren, baina, ederki menperatu zituen bere arerioak. Gorabehera hauen arrazoia, bere hitzetan, Iruñera oso berandu etorri izana izan zen, eta horrek eragin zion nekea. Leon Iudasinnek zortzirehun mila pezeta inguru jaso zuen garaipen honengatik. Puntuazioari dagokionez, bostgarrena partaideen artean (2.595), bere erregulartasun eta joko onak eman zioten garaipena.

**Los del Rayo** talde altsasuarrak Nafarroako Managua dantzalekuan aritutako heldu den igandean, hilak 12, gaueko bederatzietatik aurrera.

### ERAKUSKETAK

**Mercedes Donat Perisen** lanak daude ikusgai Iruñeko Aurrezki Kutzak Rodeznoko Kontea kalean duen erakustokian.

**Francisco Buldain Aldaveren** grabatuak Iruñeko Aurrezki Kutzak Garcia Castañon kalean duen aretoan daude paratuta, otsailaren 2a arte.

**Barañaingo IV Argazki Lehiaketan** parte hartu zuten berrogeitalau argazki daude ikusgai bertako udaletxe erakustokian, hilaren 12a arte. Ordutegia 19.30etatik 21etara lanegunetan eta goizean jaiegunetan izanen da.

**Azkoiengo pintoreei** buruzko erakusketa ikusteko azken eguna izanen da gaur, bertako Kultur Etxean. Hogeitabat koadro dira osotara eskegita daudenak, eta mota guztietako teknika eta arloak daude jorrotuta, artisten joerak ere anitzak bait dira.

### KIROLA

Eskuz Binakako Txapelketako partidu ezin interesgarriagoa ikusteko parada izanen da gaur ostirala, gaueko hamar t'erdietatik aurrera Iruñeko Labrit pilotalekuan. Retegi II eta Maiz II Eugi eta Errandonearen aurka arituko dira bertan, eta lehendabizikoek erdifinalerako txartela eskuratua izanda, hil ala biziko partidu dute bigarrenen, galduz gero ia agur esan beharko bait dute.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Astean zehar 8.30etatik 9etara... Bertatik Bertara Informazio saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 12.00etatik 13.00etara... Informazio Saioa Euskal Herria eta mundua zabala.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Astean zehar OMn 14.45etatik 15.00etara eta FMn 14.00etatik 14.10etara... Herri Kronika.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



**Z**inemak, ikuskizun nagusia duela hamar urte arte, beherakada nabarmena eta kez-  
kagarria izan du azken urteotan. Gero eta  
zinema areto eta ikusle gutxiago, egoera orokorra

da Europa osoan, arrazoi askok eraginda. Iruñean,  
baina, Golem zinemak bikoiztu egin dute hamar  
urte hauetan ikusle kopurua, eta, egun, zinemara  
baino «Golemetara» joateko ohitura gero eta zaba-

lagoa da ez bakarrik Iruñeko biztanleen artean  
baizik eta Nafarroa osokoak ere. Lehen putzuz be-  
tetako soroan eraiki duten gunek badu zeresan  
franko horretan.

## Zinemazaleak edo Golemezaleak?


MATTIN KAPITANSORO / IRUÑEA

Hamar urte beteko dira aurtan Golem zinemak inauguratu zirenetik. Proiektuaren hastapenetik Iruñeko zine-klubaren inguruko jendea zegoen, zinea proiektatzeko orduan egiten ziren gisa desberdinak probatu nahi zutenak. Monopolioa zegoen garai hartan Nafarroako hiriburuan, eta zerbait erakargarriagoa egin nahi zuten, talde handietatik aparte.

Nafarroa osoan betiko enpresak —familiarak batez ere— arduratzen ziren zinema proiektuz. 60 eta 70eko hamarkadetakoa produktu berrien zabalpenak —telebista eta bideoa geroago—, ordea, goitik behera aldatu zuen antolakuntza hau, eta arrakasta handia izana zuten lokal asko zahartuta gelditu ziren, egoera berriari aurre egin ezinean. Zinema, ordurako, ez zen ikuskizun bakarra hirietan, aurreko urteetan ez bezala, eta enpresa hauek, profesionaltasun falta zela medio, beren lokal handiak errentagarriak egiteko oztopo franko aurkitu zuten.

Golem enpresan sartu zirenek, orduan, jendearendako topagunea egitea paratu zuten helburua, ez bakarrik zinema ikusteko, baizik eta ongi pasatzeko toki aproposa ere sortzeko. 1982an zabaldu ziren lau zinema aretoak, eta duela lau urte beste bi ireki zituzten. Ondoren, 1989an, jabetxe eta kafetegia, eta duela gutxi, liburu eta diskodenda.

Orobat, eta zinemazale amorratuak izanik, ederki ezagutzen zuten zer eskatzen zuten jendeak, eta harremanak pertsonalagoak sortzen ahalagindu ziren. Josetxo Moreno, Golemeko partaideak azaldu duenez, «zinemara joaten zen jendea, lehen, txartela eskuratu, noiz edo noiz haserretu lehiatilan zegoenarekin, parean zegoen tabernara joan, atea irekitzen zituzten bitartean, pelikula ikusi eta alde egiten zuen. Golemen beste giroa eman nahi genion guzti



Bideoa eta telebistaz gain zinemaren beraren krisialdiak hustu ditu aretoak.

CARLOS VILLAGRAN

### Nafarroako zine aretoak, ikusle kopurua, eta bildutako dirutza

Urteak	82	83	84	85	86	87	88	89	90
Zinemak	86	84	80	73	69	60	50	-	-
Ikusleak(1)	2.597	2.576	2.348	1.926	1.707	1.759	1.543	-	-
Bildutakoa(2)	433	481	505	461	443	469	444	-	-
Golem									
Ikusleak (1)	249	379	399	396	409	402	553	601	549

(1): Milaka

(2): Pezeta milioiak

hori, txartelak lasai hartzeko, kritikak irakurtzeko, zerbait hartu tabernan edo liburuak begiratu, zure lagunak topatu. Festaren antzeko zerbait, finean».

Hasierako egoera ekonomiko gogorak jasan arren, hamar urteren buruan arrakasta izugarria izan du proiektuak, eta hasieran ezarritako helburu gehienak bete egin dira. Hala

ere, zinema berak galdu ez ote duen da batzuen kezka, noiz edo noiz zirkloak eginak izanda ere, filmen maila orokorra jaitsi egin delakoan.

Horren arrazoia, Morenoren ustez, zinemaren industriak berak bizi izan dituen aldaketak dira. «Ni ere gehiegi komertzializatu garelakoan nago, baina, zinemak berak bultzatuta. Duela hamar urte askoz gehiago

kontrolatzen genuen programazioa, baina azkenaldiotan izugarri aldatu dira distribuzio sareak. Hasi ginean horretaz arduratzen ziren hogeitamar bat enpresa zeuden eta egun bederatzi baino ez, horietariko bost Ameriketako pelikulak ekartzen dituztenak. Horren ondorioz, datak eta pelikulak oso kontrolatuta daude, eta hortik ateratzea arrunt zaila da».

## Herrietako zinemaren galera

M.K. / IRUÑEA

Nafarroako zinemak bizi duen egoera larria orokorra da Europa osoan, eta bertan nahasten dira gizaritaren ohituren aldaketak, eta zinema beraren krisialdi sakona. 1979an zeuden hirurogeitamar zinema aretoak erdira murriztu dira azken datuen arabera, eta ikusleen kopuruak ere antzeko joera hartu du, koadroan ikus daitekeenez.

Beherakada hau are nabarmenagoa izan da herrietan, egun, Iruñetik kanpo irekita dauden aretoak oso gutxi bait dira, duela hamar urte herri guztiak zinema zuten bitartean. Telebista eta bideoaren gorakadak eragin handiagoa izan zuten, hain zuzen ere, herrietako zinema hauetan, familiarak edo bertako parrokiarenak

izanik ezin izan bait zioten aurrea hartu egoerari. Bideodendak izan dira hortik etekina atera dutenak, pelikula herrira heltzen zenerako, aspaldian bait zegoen bideoan, pirateriari esker. Orobat, Golem bezalako muntaiekin eskaintzen zutenak erakargarria oso egin zuten zinema, herrietako aretoak, frankotan, sobera zaharturik bait zeuden.

Horren aurrean, Frantzia, kasu, bertako Zinema Zuzendaritzaren bitartez, galdutako herrietako zinema asko berreskuratzen ari dira, bai udalaren eskuetara pasatzeko, nola enpresa pribatuetara, herri herriko sareak sortzen ari direnak.

Morenoren ustez, Nafarroan badago axolagabekeria handia gai honen inguruan «eta inori ez dio inporta herrietako zinemaren galera honek».

Bere ustez, egoera bitxia da oso, «askotan zinemara jotzen bait dute dirua gastatu nahi dutenean. Adibidez, Iruñeko Udalak zinema emanaldiak dohainik eskaintzen ditu udan, zinema urte osoaren buruan izanda ere. Eta zergatik ez antzerkia, edo dantza, kasu, askoz urriagoak direnak? Iruñean badago zinema eskaintza franko, eta herrietan oso gutxi. Hor behar dira dirulaguntzak eta ahaleginak».

Horretarako aterabidea kultura eta profesionaltasuna batzea izango litzateke Morenoren ustez. «Zinemaren berreskurapena esku pribatuaren bitartez helduko da, kulturaren kutsua galdu gabe. Udalak jabetu behar dira erakarpen soziala ere baduela zinemak, lanpostu eta enpresak sortzen dituelako. Adibidez, Lizarra be-



Golem zinemaren sarrera nagusia Iruñean.

JOXE

zalako herrian zinemarik ez izatea nekez uler daiteke. Lan hori udalak egin behar du, horretarako behar di-

ren laguntzekin. Administrazioaren aldetik borondatea aurkitzen ez bada, zaila da horretan sartzea».

Horretaz gain, zinema independentearen galera paratzen du adibidetzat Morenok. «Alemaniako zinemarik ez dago, italiarra berdina, eta Britainia Handikoa amerikarrarekin nahastu da. Mantendu den bakarra frantziarra izan da, eta, horrela, nolabaiteko kalitate desberdina mantendu ahal izateko filmerik ez dago. Zinema independentea hondora joan da pixkanaka, eta, ahaleginak ahalegin, ez da hortik atera. Eta dagoen bakarra, berehala harrapatzen dute konpainia handiek. Ondoren, jakina, ez da independentea».

Aukera dutenean, baina, horrelako zirkloak paratzen saiatzen dira, eta bereziki Udako Golem programazioan sartzen dituzte urtean zehar lortutakoak.

Orain dela bost urte ere, distribuzio konpainia sortu zuten, eta beren lehendabiziko filmea arrakastatsua izan zitzairen, 'La historia oficial' pelikula argentinarrak Oscar saria irabazi bait zuen. Urte hauetan egingako lanak pozarako aitzakia ematez gain, konpainia handien eremuan sartzea zer den ere erakutsi die. «Aurtan 'El Rey Pasmado' pelikularen distribuzioaz arduratu gara, eta oso esperientzia gogorra izan da, liskarretan sartu bait gara konpainia handiekin, datak eta tokieki buruz. Beti ibili gara, baina jatorrizko bertsiotako pelikulekin, Madril eta Valenciako zenbait zinemarekin dargagun harremanen bitartez. Barcelonan, ordea, zailagoa da sartzen».

Konpainia, egun, nahiko sendotuta dago, zinema jaialdietan lortutako harremanen bidez, «eta horrelako produktuak oso utzita bait zeuden aurretik». Buruan badute ere beste tokietara zabaltzea, eta gutxi barru beste zinema aretoak zabaldutako dituzte Nafarroatik gertu dagoen hiriburu batean. Nafarroako beste hirietan, baina, ez dute horrelako asmorik, «horrek administrazioaren aldetik etorri beharko lukeelako».



LARRE, IZETA ETA HERNANDORENARI OMENALDIA

## Teodoro Hernandorena, Xalbador eta Mattin bikotearen eragilea

**U**rtarri-laren 19an Donostiako Victoria Eugenia antzokian omenduko dituzte Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian bertsolariaren alde lan oparoa eman duten hiru gizon: Teodoro Hernandorena, Mariano Izeta eta Emile Larre. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak bertsolariak ez direnei Bertsolari Eguneko omenaldia eskainiko die lehen aldikoz. Izan ere, bada hiru omenduak uztartzen dituen ezaugarria: Nafarroa, mugaz bi aldeetako Nafarroan izan dutela lan eremua, Hernandorena eta Larrek beren itzala Iparraldeko beste eskualde-tara zabaldu badute ere.

XABIER UNANUA / IRUÑEA

Espainiak Cuba galdu zuen urte berean, Euskal Herriak —bertsolari-tzak bederen— Teodoro Hernandorena irabazi zuen. XIX mendearan ondarrean, euskal nazionalismoarekin batera sortu zen, beranduago, Ipar Euskal Herrian bertsolari-tza piztu zuen gizona. Garaikide zituen gehienei ez bezala, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna ingurunearen eraginez baino gehiago, gogoeta sakon eta Euskal Herria herriz herri, auzoz auzo, pausuz pausuz ezagutzaren ondorioz sortu zitzaion.

Hernandorena Zizurkilgo (Gipuzkoa) Herriko Etxean sortu zen 1989ko azaroaren 6an. Bere aita, Nikolas, sortzez Nafarroa Garaiko Mendigorriakoa, albaiteroa zuen, eta ama Maria Pilar, Legorretan jaio eta esposatu ondotik maistra zen Zizurkilen.

Bertsozaleatasuna txikitandik heldu zitzaion Hernandorenari, Pello Errota bertsolaria Asteasutik Zizurkilgo taberna batetara joaten bait zen irina eramatera. Han, Errotaren beraren ahotik entzun zituen Hernandorenak lehen bertsoak.

Bederatzi urte zituelarik, 1907an, herriko erretorearen bitartez etxe-koek Andoaingo apaizgaitegira bidali zuten. Bertan lau urte egin zituenean, Gasteizko apaizgaitegira abiatu zen, hiru urtez Filosofia eta urtebetez Teologia ikasketak egitera. Bertzeak bertze, Manuel Lekuona eta Joxemiel Barandiaran izan zituen apaizgaikide. Hala ere,

hamazazpi urtetan Teologia ikasketak utzi eta Zizurkilera itzuli zen.

Ondoren, Zaragozara joan zen medikuntza ikasketak egitera, eta bost urtetako ikasgaiak bitan gainditu zituen. Basurtuko (Bizkaia) eritetxean hasi zen lanean, eta ondoren lau urtez izan zen Billabonako medikua. Hor ere gehiago iraundu ez, eta Donostian jarri zuen kontsulta, Primo de Riveraren diktaduraren azken garaian.



Joxemiel Barandiaran, Sarako alkatea, Teodoro Hernandorena, eta honen emaztea, zizurkildarrari Saran 1987ko otsailaren 8an egin zioten omenaldian.

Orduan, eta bertan zegoen giroak kutsatuta, politikan aritu zen, eta EGiko lehendakaria izan zen, eta ondotik Gipuzkoako Buru Batzarretako lehendakaria. Gerra amaituta, Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen. Han, eta sarri Eusko Jaurlaritzaren laguntzaile izanagatik, bertsolari-tzaren aldeko lanari ekin zion, oztopo gutxiago eta egiteko gehiago bait zegoen alor horretan.

Garai haietan ez ziren bertsolariak begi onez ikusiak eta Hernandorenak, aldiz, beraien aldeko apostua egin zuen. Berak dioenez, Jose Ariztimuño 'Aitzolek' bultzatu zuen alor hori jorra zezan. Hernandorena eta biak uztartu ziren bertsolariak elkarrenganatzeko eta modu horretan ospatu ziren 1935 eta 1936an Bertsolari Guduak edo Euskal Herriko lehen bi Txapelketa Nagusiak Donostiako Kursaal eta Victoria Eugenia Antzokietan.

Baina Espainiako gerra heldu zen eta gerrondoak urte ozpinuak ekarri zituen euskal kulturarendako. Lanean zihardutenak oso sakabanatuta eta, inolako egiturarik gabe, bakar-lana nagusitu zen. Teodoro Hernandorenak ere modu berrietara egokitu behar, eta Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan bertsolari-tzaren lehen urratsak eman zituen. Euskaltzaleen Biltzarrak antolatzen zituen

bestetan ez zen bertsolariarik izaten, eta ez zitzaion jaramonik egiten. Louis Dausance erakundeko arduradunak berak, Ipar Euskal Herrian bertsolariarik ez ze-

goela esan zion, eta zeudenak irri-garriak. «Halako amorrazioa eman zidan —dio—, bertan erabaki nuela Euskal Herria miatzea bertsolariaren bat topatzeko». Erran eta egin. Xalbadorrek 'Odolaren mintzoa' liburuan gogoratzen du nola gerla ondoan Hernandorena abiatu zen bertsolariaren bila. «Nitarat ere gidatu zuen. Donibane Lohizunen muntatu zuen txapelketa batetarat ereman ninduen. (...) Egun hori munta handikoa izan zen, eta ahalgerik gabe erran dezaket, gu, Mattin eta ni ere Hernandorenari esker ezagutu gaituela Euskal Herriak».

Izan ere, hamasei bertsolari bildu zuen Hernandorenak 1946an lehen aldikoz Donibane Lohizunen. Lapurdiko Hendaian hasi, Nafarroa Beherea goitik behiti miatu eta Zuberoako Irurirainoko bazter eta zoko moko guztiak arakatu zituen. Dene-tan lehena Ahetzeko Mattin atxeman zuen. Bankan bizi zen Juan Felix Iriarterekin hitzegitean, baiezkoa eman eta berarekin bertze lagun bat eramanen zuela agindu zion. Lagun hori Urepelgo artzain eta laborari bat zen, Ferdinand Aire. Mugaz gaindi eratutako Donibaneko lehen bertso saio hark ez zuen arrakasta handirik lortu. Giro apala eta jende eskas hurbildu zen 'Maitena' trinketera. Zorrak poltsikotik ordaindu behar-erak ez zuen Hernandorena apaldu ordea, eta berehalakoan antolatu zuen bigarren saio bat Hazparnen.

Baina Ipar Euskal Herrian ezezik Parisen ere eratu zituen bertso bestak, Frantziako hiriburuan bizi zelarik. Urruñan antolatu zen kanporaketa moduko bat Parisera joanen ziren bertsolariak hautatzeko. Lapurdiko herrixka horretan elkar ezagutu zuten Teodoro Hernandorenak eta Emile Larrek. Han aukeratuak, Xalbador, Mattin, Basarri eta Uzta-pide izan ziren, eta orduan zabaldu zen lehen aldikoz bertsolariaren irudia Euskal Herri-kanpo. Langile zuhur eta borondatezua, Ipar Euskal Herrian bertso molde herriak sartu zituen, eta bere garaiei aurrea hartzen jakin zuen gizona. Ondarreko urteetan, nahiz Euskal Herriko Bertsolariaren Elkarteak ohorezko bazkide izendatu duen, nahiz Oartzunen 1986ko ekainaren bateko otsailaren 8an eta Hondarribian 1991ko uztailaren 11n omenaldiak eskaini zaizkion, Urepeleko eta Ahetzeko bikotearen eragile izatea da merezi izan duen lanaren eskerririk onena.



Teodoro Hernandorena, Mattin, Ferdinand Aire 'Xalbador' eta Mauricio Mitxelena Pariseko Eiffel Dorrearen aitzinean, 1961ean. Bertan egin zen 1958an Euskal Herri-kanpo zabaldu zen lehendabiziko bertso saioa, Hernandorenak bultzatuta.



LARRE, IZETA ETA HERNANDORENARI OMENALDIA

## Izeta, Nafarroako ziztada

XABIER UNANUA / IRUÑEA

Mariano Izeta Elizondon sortu zen 1915eko uztailaren 14ean. Ikasketak herriko eskola nazionalan burutu zituen, gaztelaraz burutu ere, orduan ohi bezala. Eskola utzi bezain laster aitarekin hasi zen ordulariak konpontzen eta hori izan du ogibidea. Berandu bada ere, 1963an Gabriela Goñi lekaroztarrarekin ezkondu eta bi alaben aita da. Baina Mariano Izeta gizon ezaguna bada, bere euskaltzetasun eta euskal gaiei buruz egin lanengatik da ezagun.

Gaztetandik izan du harremanik kultura, politika, folklorea, kirola eta Baztanen antolatzen zen zernahi eskual ekintzekin. Politikari dagokionez, hemezortzi urte zituen Izetak EAJn bazkide zenean. Elizondoko alkate izana da 1957 eta 1958 urteetan. Franco hil ondoan, Baztango Balleko Etxerako zinegotzi hautatua izan zen EAJtik legegaldi baterako. 1982an, berriz, Madrilgo Gortearako hautagaien zerrendan aurkeztu zuten.

**IZKIRIATZAILE ETA ELETARI** Espainiako Gerrak iluntasun urteak ekarri zituen. Mariano Izeta, politika eta bertsolaritza zertxobait ahantziz, bertze egiteko batzuei buruz murgildu zen lehen urte horietan. Mendizale lehenik. Elizondo koralean kantari urte luzez, pilota nahiz Baztanen eratzten zen bertze kirol lehiaketen antolatzaile gisa, orotarako bazuen borondate eta betarik. Ezin aipatu gabe utzi, Mariano 'mutil dantzaria' dela. Elizondoko bestak direlarik, Santio Egunez, berari dagokio dantza hasteko ohorea. Ohore handia baztandar batendako!



Mariano Izeta.

**D**agokion hondar alea paratu du idazle bezala. Lekarozeko kaputxino batek luzatu zion 1957an idazten hasteko gomitea. Berrogoi urte beteta ekin zion beraz, geroztik hain gogoko izan duen lanari, beti Baztan edota euskal gaiei buruzko idazkiak.

Idazle bezala ere dagokion hondar alea paratu du. Lekarozeko kaputxino batek luzatu zion 1957an idazten hasteko gomitea. Berrogoi urte beteta ekin zion beraz, geroztik hain gogoko izan duen lanari. Bere idazkiak, beti Baztan edota euskal gaiei buruz, aldizkari eta egunkari ezberdinetan azaldu dira.

Bertzalde, bi eleberri eta ipuin bat

idatzi eta argitara eman ditu. 'Dirua galgarri', 'Nigarrez sortu nintzan' eta 'Sorginak infernuko errekan'.

Orobat 'Baztango hiztegi ttipia' deitu lana 1985ean argitaratu zuen. Geroztik bilketa lanean segitu eta akitu hurren duen hiztegi berri osatuan bi mila eta bortzehen hitz eta Baztango erranairuak azalduko dira.

Baina urtarrilak 19 bertsularitzaren alde egin duen lanarengatik omenduko dute Donostian. Aspaldikoa da zaletasun hori! Espainiako gerra aitzinetik, 1936ko urtarrilaren 12an Nafarroan egin zen lehen bertsolari txapelketa hurbiletik bizi izan zuen Marianok. Elizondoko Euzko Etxea deitu elkarteko bertze zombait adiskiderek batera bertsolarien biltzen aritu ziren batera eta bertzeren saioa antolatzeko. Hogozi urte baizik ez zituen orduan Izetak. Baina Gerra hastearrekin akitu ziren bertso eta euskal bestak, Nafarroan bereziki.

Hogoitau urteren buruan antolatuko zen hurrengo Nafarroako Bertsolarien Txapelketa Vianako Printzea erakundearen eskutik. Pedro Diaz de Ultzurrun Iruñeko mediku eta euskaltzale prestua zen sail horretarako arduraduna. Hunek, Baztan eta inguruko bertsolariak biltzen lagunduko zion galdegin zionean Izetak fite azaldu zuen laneko gogoia. Hala bada, antolatzailea taldean sartu eta 1962tik 1986ra bitartean Nafarroako Txapelketako epaimahaikide izan zen, eta urtebetez, 1967an, Euskal Herrikoan. Honetaz gain, Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarte sortu aitzin Nafarroan antolatu bertso saio gehienak Marianoren eskutik pasa izan dira.

Mariano Izetak inoiz bertsorik bapatean bota ez duen arren, tarteka bertso idatzkiak paratzen ditu.



Mariano Izeta gaijartzaille moduan aritua urte luzeetan. Argazkian ikus daiteke Elizondoko 'Antxitonea' 1970ko maiatzaren 17an egin dako bertso saioan. Kantari, Manuel Lantzarra.

mintzoak

### ETB1 Iruñerrian

● Oporraldi gehiago dagoen egun hauetan, jende askorentzat behintzat, haurrentzat batez ere, batek pentsa dezake «bueno, egun lasai hauetan aprobetxatuko dut, besteak beste, eskuarki ikusi ezin izan ditudan programa horiek patxadan ikusteko». Ba, ez jaunandreak! Gutxienez euskaraz ikusi nahi dugunok —eta euskaldunak izanik, bestaldekik, ez litzateke batera arraroa izan beharko— ez dugu aukera oso handirik izan. Euskaltzalea den oro, seguraski, egunero konturatuko zen zer gertatu den, baina bada ezpada ere dagoeneko oharu ez den norbaitez esan beharra dago abenduak 22, 23 eta 24 egunetan ETB1eko irudiak misteriosuki desagertu zirela, eta gero, era berean, agertu ziren.

Jakina, nik ez dut hasi nahi gaizki pentsatzen hemen, eta uste izanik, norbaitek izorratu nahi izan gaituela, noski ezetz, baina gauza bera gertatu zen 28, 29, 30 eta 31 egunetan. Ni Iturrama auzoa bizi naiz eta ez dut uste batera sorginduta dagoenik hain zuzen ere. Beste aldetik ere, badakit beste auzo batzutan gutxienez —seguru asko guztietan— fenomenu bera gertatu dela, eta gogoan hartzen baldin badugu Iruñerrian gutxienez sei telebista kate ikus daitezkeela gaztelaraz, beste batzuk ingelaz, frantsesez, eta abarrez, iruditzen zait ez dela asko eskatzea kate bat eta gainera programazio ordu nahiko murriztu batekin, eskatzea, diot, gure bertako hizkuntzan, zeren eta, egia baldin bada norbaitek esan dezakeela gaztelara hemengo hizkuntza ofizial bat dela, ez da egia txikiagoa, ordea, euskara bertako hizkuntza berezia eta zaharragoa denik.

Baina esanak esan, kontua da zazpi egun luzean bertako euskaldunok izorratu behar izan garena. Eta norbaitek pentsa baleza euskaldunok gaztelaraz —eta gainerakoetan ere— uler dezakegula, erantzungo nioke ea non dagoen aukera askatasuna.

Bestaldekik ere, bururaten zait pentsatzea zer ez ote zitekeen gertatuko Iruñerriko erdaldun hutsak geratu izan balira beste hainbeste egunetan beren Espainiako telebista erdaldun maitagarririk gabe. Seguru asko zerbait eskandalugarria. Hori izango da, behin ere ez gertatzearen zioa, seguruaski.

Baina, oraingo honetan behinik behin, eta beste askotan bezalaxe, euskaldunak gara izorratuak atera garenok. Amatiñok dio Nafarroa eta Iparraldea ez direla bere eskumenekoak, eta Urralburuk, jakina, aspaldian jan, irentsi eta lisiriatu zituen bere hitzak, beraz, horrengandik ere zer espero dezake guk jadanik?

Eta Paz de Ziganda ikastolakoei ere zer esango diegu ba? Ez al zuten nahikoa egin seinalea honeraino helaraztearaino? Baina errealitate gordina hauxe da, gure zoritxararako, alegia. Euskaldunok, geure etxean bertan askoz izorratuago gabiltzala erdaldunak baino hizkuntzari dagokionean bere aspektu guztietan. Honexegatik batuztan izaten dut tentaldi txiki bat, hots, pentsatzeko askotan ez ote gabiltzan atzeraka, maldan gora eta haizearen aurka?



## Iparraldean bertso maisua

X.U. / IRUÑEA

Emile Larre, apaiz, bertsozale, pilotazale eta euskaltzaina Baigorri sortu zen duela hirurogei eta sei urte, urtarrilaren 3an. Txikitandik izan du euskal zer duen ororekiko atxikimendu berezia. Hamaika urte zituen Baigorriko Belarria etxetik Uztaritzeko Seminario Ttipirat abiatu zenean. Bertan emandako zazpi urteak bere bizitzako onenetarikoak izan ziren. Piarres Lafitte izan zuen irakasle, eta berak ere izan zuen beregan lurrarekiko maitasuna.

Urruñan bikario zelarik piztu zen Larrereren bertsozaletasuna. Etxeberri, orduko erretoreak, bertsolariak zinez maite zituen, eta Hernandorena, 1958ko udaberrian bertso saio bat antolatzeko galdetu zionean, fite eman zion baietzkoa. Han ezagutu zuten omenduek elkar. Arrakasta handiko saioa izan zen, eta Larre bertan egon zen urteetan, hutsik egin gabe, bertso saioak antolatzeko ardurara bere esku hartu zuen. Aiherran izan zen zuten ohitura horrek segida.

Bertzalde, bertsolari txapelketa ezberdinetan epaimahaiko izan da Emile. Lehenik, Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketan, Michel Labeguerien ordezkari eta gero Euskaltzaindiaren izenean, 1980 eta 1982an. Nafarroako Bertsolarien Txapelketaren bigarren aldia hasi zenean, laurogeigarren urteko hamarkadan, epaile izan da eta da. Bertsolari gisa ere dohain handikoa da Larre nehoiz kantuan entzundakoei erraten dutenez, eta bertso idatzitan jakina da bere trebetasuna. Ez du, ordea, jendearen aitzinean kantatzen.

Egun plazan dabilzan Ipar Euskal Herriko bertsolariek Larrereri zor dizkiote lehen erakapenak, saiatu bait da bertsoaren arauak zeintzu diren azaldu eta bidaltzen zizkioten bertsoak makurra non zuten agertzen zuzenarazteko.

Berak antolatu saiotan ez zen bertsolari gazteen faltarik izaten. Elizkizunetan ere, Xalbador eta Mattinekin batera sartzen zituen gazteagoak jendeak ezagutu zitzen. Hastea La-



Emile Larre.

rrerekin izan zuten guztiak ez dabilzan plazan baina plazan dabilzan Ipar Euskal Herriko guztiak, batek edo bertzek ezezik, badute zorrik Irisarriko erretor eta Euskaltzaindiako baigorriar seme honekiko.



## Gazteendako Zokoa

### Arrano beltza

*Aguila chrysaetos*

Betidanik gizakumeez mirestua.

Hegalaldian dotore oso.

Txorikume bat bakarrik ateratzen da.



### Hegaztien erregea

Hegaztien artean erregea dugu arrano beltza. Zeus eta Jupiter jainko zaharrei konsagratuta greziar eta erromatar mitologietan, gizonak betidanik mirestu du, jatorrasuna eta adorea sinbolo egin arte. Hori dela eta, bere irudia frankotan agertu da harmarri, bandera eta horrelakoetan.

Hegalaldian dotore oso, baldarra da lurtean. Haize boladez baliatzen da hegan aritzeko, eta luze egon daiteke hegoak mugitu gabe, hain gogoko dituen arbi eta konejuen bila. Bere ikusmenari esker, kilometro t'erdira mugitzen den oro ikus dezake.

Ikusi orduko, beregana oldartzen da, eta behin harrapatuta bere txofrakietara eramaten du. Hauek, batzutan, bi mila metrotako altueran egon daitezke, eta txotxamarrez eginda-koak eta ostoez estaliak izaten dira.

Txorikumeak luma txuriz jantzita jaiotzen dira, eta hamaika aste ematen ohi dute hegan hasi arte. Bi edo hiru jaiotzen badira ere, handiena berehala nagusitzen da, eta azkenean bera bakarrik gelditzen da.

Hasieran amak bere papoan bigundutako begetalez elikatzen da, eta ondoren haragi puskez eta txori txikiez ere bai. Hiru hilabete pasata, bere kabuz hasi behar du janari bila.

Nafarroa ia osoan ikus badaiteke ere, urria da Bardeetan eta iparraldeko mendebaldean. Horren arrazoia zonalde handien duen beharra da.



Behiak bi adar, bi begi eta bi belarri zituen, alajainkoa.

## Behi erraldoia

### MAIDER ESEBERRI

Ez dakit nongo herri txiki batean, orain dela urte t'erdia, gertaera harri-garri bat iragan zen. Herria iziturik zegoen, dendak itxita zeuden, etxeetan ez zuten argirik pizten, ez zuten soinurik egiten, eta kaletik zehar ez zebilen inor. Beldur honen zergatia Mari erreka ingurutik zebilen behi erraldoia zen. Herritarrek ziotenez, behiaren begiek sua botatzen zuten. Gainera, miatzka bat emanez, baso erdia jan zezakeen.

Arazoarekin bukatzeko, alkateak bilera batetara deitu zituen herriko gizon ospetsu eta jakintsuenak:

—Herrikide maiteok, hemen bildu gara orain dela bi aste zirikatzeko gaituen arazoa konpontzeko. Bururatzeko al zaio norbaiti zerbait?

Denak pentsatzen aritu ziren ordu bat, bi ordu eta sei egun pasa arte.

Herriko gizon jakintsuek udal-txean egunak eta egunak emaitzarik lortu gabe pasatzen zituzten bitartean, Andoni izeneko gizon bat iritsi zen herrira. Andoni oso arraroa zihoan jantzita. Kolore guztietako tunika bat zeraman gerriko zabal batez eutsia. Azpian galtza marroi batzuk zeramatzen lore urdinez apain-

duak. Oinutsik ibiltzen zen leku batetik bestera, bizkarrean zintzilik motxila handi eta bete zeramalarik. Ille gorri eta nahasi batzuk estaltzen zuten bere buru handia, edozein momentutan burutik ihes egin beharko balute bezala. Sudurraren gainean marroi koloreko betaurreko txiki eta borobil batzuk zintzilik zituen. Horrelako tipo bat herrian sartzeak nahaste borrate handia sortu zuen biztanleen artean.

Hasieran, herriko zaharrenek Andoni zoroa zegoela zioten. Kanean biltzen ziren gutxien artean, horrelako esaldiak entzun zitezkeen:

—Joxepa, ez duzu uste gizon hau deabruak bidalitakoa dela?

—Ez dakit, baina tipo arraroa da.

Baina hurrek ez zuten berdin pentsatzen, gizon arraro hura oso jatorra eta haurzalea iruditzen zitzaion eta hala zen. oso denbora gutxitan Andonik herriko haur guztiak lagunak zituen. Egutero biltzen ziren haurrak Andonirekin eskola ondoan zegoen behi erraldoiarengandik ezkutatuko txabolan, eta hantxe egoten ziren, hark esandako historiok zoragarriak entzuten.

Behin, behiaren asuntuari buruz hitz egin zuten txabolan eta Andoniri

ile gorriak berdetu zitzaizkion. Haurrak erabat harriturik zeuden. Andonik, behi erraldoi hori ezagutzen zuen. Behi harrigarri haren esnearekin Andoni hazitu zen. Denbora haietan tamaina normaleko behi eder eta lodi bat zen. Baina Andoni gorrotatzen zuen norbaitek behia zigortu zuen Andoni hazitzeagatik, eta behia izugarri handi bihurtu zuen. Andonik behia bere lehengo tamaianara bueltatzeko konponbidea bilatu zuen urte askotan zehar, eta azkenean Erro ibarreko atso zahar batek erakutsitako baratxuri salda saiatu zuen.

Hurrek, hau entzutean, baratxuri salda egiteko osagaiak ekarri zituzten txabolaran. Andonik salda prestatzen zuen bitartean, haurrak guzti hau bere gurasoei esan zieten.

Hurrengo egunean, herri osoa, apaiza, alkatea, maisua eta beste guztiak, behia zegoen lekura abiatu ziren, Andonik prestatutako baratxuri salda zeramatelarik. Behiari, mingainarekin salda ukitu eta bapatean burua txikitu zitzaion, ondoren, gorputza, eta, azkenik, hankak. Buztana ez zitzaion txikitu, baina lehen zen bezalako behia izatera bueltatu zen.

### NON ZER

#### Ikastaroak

□ Iruñeko Lemuria Dantza taldeak bertan aritu nahi dutenendako ikastaroak antolatu ditu hilaren 18 eta 19rako. Ikastaroa doahinik izanen da, eta goizeko 10etatik 12ak bitartean burutuko da. Informazio gehiagorako, hona telefonoa: 17 46 91

#### Lehiaketak

□ III Literatur Lehiaketa antolatu du Iruñeko Udaleko Hiritar Eragintza Arloak. Lehiaketa Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren erdiko edo goi mailakoendako dago egin, eta ipuinak edo narrazioak aurkezteko epea martxoaren 30an amaituko da. Informazioa: Hiritar Eragintza Arloa. Zapateria Kalea, 40. 31.001 Iruñea.

□ Zaragozako Taj-Mahal liburudendak gazteendako I. Komiki Lehiaketa antolatu du. Lanek gaztelaniaz beharko dute izan, eta marrazkia eta pintura motak guztiz libre break dira. Luzera gomendagarria sei orrialdekoa da gutxienez. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31an amaituko da, eta lehendabiziko saria 500.000 pezetakoa izanen da. Informazioa: Taj-Mahal liburudenda, Juan Pablo Bonet, 20, behea. Zaragoza 50.006

□ Arabako Diputazioaren Kultur Sailak eta Caja Vital-Kutxak Habanerasen Txapelketarako deia egin dute, apirillean egingen dena. Abesbatzak mota guztietakoak izan daitezke, eta sei habanera abestu beharko dira, Sebastian Iradierren 'La Paloma-rekin' batera. Lehendabiziko saria 750.000 pezetakoa izanen da. Argibideak Gasteizko Vital-Kutxan jaso daitezke: tfnoa.: 945-16 20 00

□ Azpeitiko III. Komiki Lehiaketan parte hartzeko deia zabalik dago. Partaideak 8 eta 16 urte bitartekoak izanen dira, eta bi maila desberdinak izanen dira, adinaren arabera. Gaia 'Neu nire inguru giroan' izanen da, euskaraz zein gazteleraz. Epea otsailaren 29an amaituko da.

#### Lana

□ Faltzeseko Udalak bi peoi kontratatuzko deia egin du, erregimen laboralean eta oposizio-lehiaketan. Halaber, zerbitsu berezietarako subalternoak behar dira bertan. Informazio gehiago behar duenak hurrengo telefonora hots egin beza: 73 40 56

□ Nafarroako Diputazioak liburutegiko zazpi laguntzaileendako kontratatuzko deialdia egin du.

### KAZKARROAN

#### Lesakatik Goizuetara

Elizondan bertso eskolen II. Topaketak zirela eta, Goizuetakoak ez ziren agertu. Horra Lesakakoek horren inguruan bota dieten desafioa.

Goizuetako aste hartatik pasa da nahiko denbora berriro ere elkartu behar ta bazenekiten nora hemen gurekin ez egoteko arrazoirik egongo da gu gutxienez zuen ondoan ibili ginen gustora zergatik ez zerate etorri gurekin Elizondora


Leitzakoekin talde ederra animoso ta bikaina osatu degu denen artean giro ederrean baina sobratu dira platerak eta sobratu zaigu txanpaina sobratu ere turroia eta sobratu dira bi 'kaña' zuek askorik ez izan arren faltan botatzeko haina

Goizuetara azaldu ginen bertsoetarako potente baina han zuek hankak dardarka ia ezin egon tente galtza txuriak marroi bihurtu ziren bertan derrenpenete ez genuen uste zinaterikan txarrak bezin inuxente gurekin berriaz elkartuzko kakalarri al zaudete

Gure Mahoma profeta zaharrak esaten zuna egi da «mendia ez bada gugana etortzen gu joango gara mendira» egun batean deskuidatuta Goizuetako herrira joango gara mikroarekin etsaiak dauden tokira plaza erdian zuek prestatu bertso kantu ta mobida

Lesakako bertso eskola

### HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.- Euskal atzizki handigarria. Heldu. 2.- Izenburua. 3.- Karrika. Ezen. 4.- Garai, sasoi. Arabako herria. 5.- Kontsonantea. Dihoa. Lehenengoa. 6.- Zikin, hits. Euskal atzizkia. 7.- Behizain. Mukiak kentzeko. 8.- Lurrazpian hazten den zuntza. 9.- Bilera batean esandakoa jasotzen duen agiria. Euskal atzizkia.

GOITIK-BEHERA: 1.- Gorotza. (Infi.) Luzatu. 2.- Otargileak. 3.- Arto irinez eginiko opil. Niri, da. 4.- Hitz. Adierazten dena merezi duena. 5.- Boroaren sinbolo kimikoa. (Ald.) Abiatzen ari naiz. Azkenekoa. 6.- Tortxa. Tente. 7.- Gipuzkoako ibaia. Euskal atzizkia. 8.- Zorupea. 9.- (Bi hitz) Kasik. Aiako.

### Zaharrak berri

**Abendue, xai huts eta gau huts**  
Hilabete horretan gau luzeak eta Nafarroan, jai egun asko.

**Mezkiritz.**  
**Gausko lana, egunsko alxia**  
Gauetzko lana, egunezko lotsa.

**Zaraitzu**

Gorrrak:

—Ez ezazu nirekin hizketan denborarik gal, gorra naiz eta.

—Ez nintzen zurekin hizketan ari... txiklela mastikatzen ari nintzen.



## Bizi Bizian

**A**nnapurna mendira (Himalaian) joan nahi baduzu, ez duzu jada zure burua zertan hustu beharrik nola egin zenezakeen asmatzen. Orobat, zure betiko ametsa San Donatora zaldiz igotzea izan bada, edota askotan pentsatu baldin baduzu Algeria tuareg-ekin batera ezagutu nahiko zenuela, baduzu non galdetu. Eta Belagoa eta Aralar elur faltan aurkitzen badituzu, eta Olentzerok oparitutako fondoko eski berriak probatu nahi badituzu Alpeetan, gertu duzu soluzioa. Guzti hau eta askoz gehiago antolatzen bait du Natura kolektiboak.

# Annapurnara joatea edonoren esku dago

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Ekologia eta kirola gizarte hone-tan gero eta errotuago eta gero eta uzartuago daudenik ezin uka, eta hori baieztatzeko azken urteotan honen inguruan sortu den dinamikari baino ez zaio erreparatu behar. Arroilen jaitsierak, mendiko zeharkaldiak, fondoko eskia, mendiko txirindula, piraguismoa, eta antzeko ekintzetan ibiltzen den jendearen kopurua handituz doa urtetik urtera, eta ez dira makalak horrelako ekintzak antolatzen aritzen direnak.

Hain zuzen ere, eskaintzak batzeko jaio zen Natura kolektiboa duela lau urte Iruñean. Ekintza zehatzetan adituak zirenek, zegoen eskaera eta eskaintza ikusita, talde finko bat osatzeari oniritzi zioten, ekitaldiak lortuagoak eta zabalagoak izan zitezkeen; eta elkartu egin ziren.

Hor zeuden, beraz, monitoreak, mendizale adituak, gidariak, eta eskaini behar ziren gaietan esperientzia zutenak. Hasieran Iruñeko Muga liburdenda eta kirolendaren aritu ziren beren ikastaroak egiten eta bidaiak antolatzen, baina duela gutxi Barañaingo Foru Enparantzara joan ziren, bidaia agentzia baten aldame-nean. «Akaso aproposagoa da bidaia agentzia bat kirol denda baino», azaltzen dute.

**IKASTAROAK ETA BIDAIAK** Taldea, egun, hamahiru lagunek osatuta dago, baina ekintza guztiek beren antolamendu eta egutegi propioa dute, eta baita beren arduraduna ere. Bi motatako ekintzak eskaintzen dira Naturatik. Lehendabizikoak, ugariak, be-

raiek antolatzen dituzten ekitaldiak izaten dira, bereziki ikastaroak, edota egun batzuetako ekintzak, eta bigarrenak bidaiak, mota guztieta-koak.

Badadude, izan, non aukeratu, eta Nafarroan ez ezik kanpora ateratzeko aukera ere ez da baztertu. Horrela, fondoko eskian, eta ohizko eremuetatik aparte, Juran (Frantzia-Suitzako Alpeak) astebeteko ikastaroak antolatu dira bigarren urtez. Zonalde hau eskiaren paradisuat hartzen dute fondoko eskiatzaileek.

Orobat, zaldiz Santiago bidea edota Venezuelan ibiltzeko ekitaldiak daude antolatuta, eta baita Himalaian edota Andean trekinak ere, burura etortzen zaizun guztia, azken finean, haiek antolatu ezezik, gidariak ere eskaintzen dituztelako. «Normalean, guk egiten dugu eskaintza, baina, hala eskatuta, bidaia berezietarako monitoreak paratu edota aholkularitza lana ere egin dezakegu».

Hala ere, askotan nahasten da Naturak eskaintzen duena, bidaia guztietan mota bateko edo besteko ekitaldia sartzen bait da: mendia, piraguismoa, trekina...

Ekintza haiek egun duten arrakastak eragin zuzena dauka taldeak antolatutako ekintzetan, baina ekologiaren atxekimendua ez dute, inondik inora, ahaztu. «Gure funtsa jende pilaketa ez dagoen tokiak eta ekintzak dira, eta horrela egiten dugu».

Prezioak ere zaintzen saiatzen dira, eta zenbait ekitaldi merkatuan dauden merkeenetakoak dira. Hori bai, egin daitezkeen gauzei erreparatu gero, dirua ahazteko gogoak ematen ditu Naturaren programak.



Mendi ibilaldiak Pirinioetan, Picos de European eta Alpeetan antolatu dituzte aurten.

## Zaharrendako, gutxiagotuendako...

P.U. / IRUNEA

Duela lau urte haiek bakarrik baziren ere, lehia gogorra dute gaur egun horrelako bidaiak antolatzera-ko orduan, jendearen aldetik izan den gorakadak ikastaro eta mota guztietako ekitaldiak antolatzera bultzatu bait ditu asko. Eta hori ere zitzada bizia izan da Naturakoendako. Horrela, beren ekintzen katalogoaren barruan, Annapurnara espedizioa egiteko aukera agertzen da, iraila-urrian burutzekoa. «Ekintza hau oso minoritarioa izan da, jakina, eta ez dakigu ezta baten bat aterako den ere, baina horrelakoak eskaintzeak zerbait desberdina egitea du asmoa, erakargarria, jende asko bait dabil hemen sartuta. Gaur egun, baina, eta egiten diren gauzei erreparatzen badiegu, uste dugu eskaintzarik zabalenetakoa daukagula».

Horrelako espedizioak antolatzea, oraindik gaur egun, lan nekoso eta luzea izaten da, egin behar diren gestio guztiak direla eta. Hala ere, Naturak egiten duena, hots, gestio

horiek egin eta espedizioa prestatu, gero eta arruntagoa dela azaltzen dute partaideek. «Katalunian, kasu, badago horretaz arduratzen den enpresa bat, eta Himalaiara joan nahi duenak, zortzi milako bat egitera, bere prestakuntza fisikoaz arduratu

beharra dauka bakarrik. Aurten badago Annapurnara joateko baimena lortzeko aukera, eta horregatik iragarri dugu bidaia».

Halaber, eta gauza berriak antolatzeko asmo horren barruan, hirugarren adinakoendako edota gutxiagotuendako ikastaroak ere eskaintzen dituzte, hala nola, natur ibilaldiak, mendia igoerak, txirindulazko txango eta ibilaldiak, ekintza kulturalak, eta abar.

Oztopoak, baina, ugariak dira hemen. «Oso zaila da horrelakoengana heltzen, aurritzi franko bait dago tartean. Gutxiagotuen elkarteek, adibidez, badiuzte euren programak eta txangoak eginak, baina askotan ez dira behar bezala antolatzen, hain zuzen ere iritzi okerrak daudelako tartean. Taldeak mendira eramaten dituzte, eta autobusetik ez dira ezta berrogeitamar metrora ere aldentzen. Italian, adibidez, itsuekin eskalada ikastaroak antolatzen dituzte, oztopo eta neurri guztiekin, jakina, baina hemen oso zaila da horrelakoak egitea».



Guarako basoan arroilen jaitsierak egin daitezke bost egunetan. XABIER URRESTI





## Bernardo Estornes

.....Argitaratzailea

### «Franco garaiko zentsurarekin nola jokatu ikasi genuen»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Saria ematerakoan bizitza osoan euskal kulturaren alde egindako lan oparoengatik izan zela adierazi zuen Eusko Ikaskuntzak. Horrek poz berezia emango zizun ezta.

**BERNARDO ESTORNES.**— Bai, eta baita Manuel Lekuonarekin berarekin adiskidetasun handia nuelako ere. Lekuona Izaban ezagutu nuen, bera hara joaten zenean. Garai hartan 'Literatura oral euskerica' izeneko lana argitaratu nion, 1934ean sortu nuen Beñat Idaztiak argitaletxean. Joxemiel Barandiaran ere garai berean ezagutu nuen, eta berari ere lan bat argitaratu nion orduan: 'El hombre primitivo en el País Vasco'.

**EGUNKARIA.**— Eta nola bururatu zitzaizun argitaletxea sortzea?

**ESTORNES.**— Oso istorio luzea da. Ni Zaragozan aritzen nintzen merkataritza ikasketak egiten eta 1927an Erronkariari buruzko liburua argitaratu nuen, hain zuzen ere 'Erronkari' izeneko. Hamazortzi urte nituen idatzi nuenean, eta hoge argitaratu nuenean. Argitaletxea oso xumea zen, ikasle baten gogo eta ametsak gauzatzeko edo. Hala ere, ez nuen aparteko zailtasunik ikusten orduan, eta aurrera egin nuen. Gero, Zaragozan, han geunden euskaldunon artean Udako Unibertsitatearen Ikasketen Buletina jasotzen genuen, eta Donostira joatea erabaki nuen. Matrikula egin eta jende asko ezagutu nuen orduan, eta Eusko Ikaskuntzako liburutegi eta bulegoko buru izan nintzen.

**EGUNKARIA.**— Gerra garaian, ordea, herbestera joan behar izan zenuen, baina ez zenion argitaratzeaz utzi. Zailagoa izango zen, baina...

**ESTORNES.**— Kanpoan zailena bizitza zen. Guztiok poltsikoak hutsik atera ginen eta oso gogorra izan zen dena. Parisera joan eta han ezkondu nintzen, eta orduan zorte izugarria izan nuen, Izabara askotan joaten zen nafar batekin egin bait nuen topo. Harek lortu zidan Chilera joateko behar zen baimena, oso zaila bait zen garai hartan. Judutar guztiak hara joango zirela pentsatzen zuten eta... Han 'Batasuna' aldizkaria argitaratu nuen, bertan zeuden euskaldunekin, eta urte t'erdia iraun zuen. Gaiak euskal kulturarekin lotuta ziren denak,

**D**uela hilabete amaitu berri dudana erronkari-gaztelania hiztegiak makinaz idatzitako 700 orrialde ditu, eta bertan 20.000 hitz inguru daude. Hori bi mila biztanle duen ibarrean benetan harrigarria da, eta nekez uler daiteke».

eta gaur egun oso nekez aurkitzen da. Leku askotan agortua izango da.

**EGUNKARIA.**— Eta handik nolabaiteko harremanik ba al zenuen Euskal Herrian gelditu zirenekin?

**ESTORNES.**— Ez, dena eten zen. Baina, badakizu, Chilen hamazortzi urte eman ondoren lagun berriak ere sortzen dira. Han izan nituen nere seme-alabak, Jainkoari esker euskaldunak direnak, ez ni bezala.

**EGUNKARIA.**— Donostira itzuli zinenen, 1958an, zer nolako egoera aurkitu zenuen hemen?

**ESTORNES.**— Jakina, ez zen oso poz-

**B**ernardo Estornes Lasa 84 urteko izabatarrari eman dio Eusko Ikaskuntzak aurtengo Manuel Mitxelena saria, euskal kulturaren alde bere bizitza osoan zehar egindako lan oparoengatik. Estornestarren zaharrenak Auñamendi argitaletxea sor-

tu zuen gerra ondoko garai zailetan, eta berari esker artikulu eta liburu franko ikusi zuten argia. Egun Donostian bizi den nafar honek erronkari-gaztelania hiztegia bukatu berria du, eta argitaletxe eske dabil orain, gustokoena Nafarroan ateratzea izango bazen ere.



Bernardo Estornes etxean duen lirurutegiaren aurrean.

JUAN CARLOS

ere idatzi dituzu. Urte guzti hauetan izan duzu Erronkari eta Izabarekin harremanik?

**ESTORNES.**— Bai, udaro joaten naiz hara, eta oso hurbiletik jarraitu dut erronkariaren galera. 1929an hasi nintzen erronkariari buruz apunteak hartzen, hango emakumeei. Hain zuzen ere, duela hilabete amaitu berri dut urte hauetan prestatu dudana erronkari-gaztelania hiztegia. Makinaz idatzitako 700 orrialde dira osotara, 20.000 hitz inguru. Hau, bi mila biztanle duen ibarrean, benetan harrigarria da, eta nekez ulertzen da. Nere ustez, erronkari-gaztelania

Aragoi Garaiko ibarretan egiten zen euskararen azken aztarna, hitz kultuok ugariak bait dira. Izan ere, ibar horietan ugariak ziren monastegiak, eta dotrina predikatzen geldituko ziren hitz asko. Adibidez, eskolari 'ikasgu' esaten zitzaion, eta abizenari 'izenburia'. Hau da, hitz kultuok. Orain, argitaletxe baten eske nabil, ea publikatzen didaten. Hala ere, gustokoa nuke Nafarroako baten bat izatea, bertan bakarrik udak ematen bait ditut, eta hori oso gutxi da. Pixkanaka pixkanaka loturak ere galitzen dira, eta gustatuko litzaidake zerbait uztea.

NOSKI JATOR

ZALDI ERDA

